



Palestina irtenbide justu baten bila



Olibondoek zutik diraute

Kezkatuta dago Israelgo gobernua. Hala adierazi du palestinarrek gidatzen duten Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpainari buruz. BDS siglekin bataiatua, agintariok aitortu dute mundu zabalean “esponentzialki” ari dela hazten. Nazioarteko hedabide nagusiek azken aldian eskaini dioten tarte horren erakusle da. Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu, joan den ekainean kanpaina hori borrokatzeko misioa eman zion Afera Estrategikoen Ministeritzari.

“Gandhik esaten zuen bezala, lehenengo ez ikusiarena egingo dizute, ondoren barre egingo dizute, gero borrokatu egingo zaituzte, ostean, irabazi egingo duzu. Eta guk irabazi egingo dugu”. Kanpainaren sortzaileek diote, Ramallahko bulegoan.

Euskal Herriko ordezkariak kultural batek 9 egunez egindako bidaia du ardatz irakurleak eskuetan duen erreportaje honek. *Bakea eta Duintasuna, Biladi eta Sodepaz Nafarroa* elkarteek antolatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntzari esker gauzatu da bi herrion arteko harreman trukea. Kulturaren esparruan palestinarrek bizi duten egoeraren sentsibilizazioa landu nahi da.

Palestinarekiko Elkartasun Urtea izendatu du Nazio Batuen Erakundeak 2014a. Israelgo estatua sortu zela 66 igaro direnean, bizitza gogorra da olibondoaren lurralde honetan.

Israelgo gobernua eta Aginte Palestinarraren arteko bake negoziazioek ezer gutxi konponduko dutela uste dute bi aldeetako herritarrek, agendatik kanpo geratu baitira beren ustez ezinbestekoak diren gaiak, hala nola, errefuxiatuen itzulera eskubidea. Beren existentzia hutsa erresistentziaren oinarri gisa ulertzen duen herri honen mundu ikuskeran sakontzen saiatu gara, emaitza, milaka laginen artean bat besterik izango ez dela irakurleari hasieratik adieraziz. Hedabide nagusiek albiste asko eta informazio gutxi ematen duten garaioan, okupazioaren aurka lanean ari diren herri mugimendu eta norbanakoek transmititutakoa josi eta testuinguruan kokatzea izan da LARRUN asmoa.

■ **Testua eta argazkiak: Lander Arbelaiz**

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIaren 2.404. zenbakiarekin banatua, 2014ko otsailaren 23an)



Debekatuta duten lur eremuetan sartzen dira ekintzaile palestinarrek. Israelgo Poliziak bortxaz bota ohi ditu.

“14:00etan izango da Big Banga” esan eta telefonoa eskegi du ekintzaile palestinarrek. Israelek 1948an herritarrak kanporatu zituenean birrindu zuen herri batera joango dira, biziberritzen saiatzeko. Debekatuta daukate hori egitea, eta polizia militarra etortzean bide baketsuak erabiliz eutsiko diote. Gas negar eragileak eta plastikozko balak erabiliko dituzte agenteek ziurrenik, aurreko protesta baketsuekin egin izan duten bezala. Egun bat lehenago desalojatu dute azken kanpamendua ehun bat pertsonak sei egun bertan egin ostean. Hamabi ordutan prest dute hurrengo ekintza. Eta botatzen dituztenean, beste gune bat aukeratu eta berriz egingo dute.

Jeriko kanpoaldean kokatutako herrixka batean dago, Palestinaren ekialdean, basamortua amaitu eta Israelen palmondo sailak hasten diren lekuan. Jesusek 40 egun eta 40 gau noraezean egin zituen bertan munduko libururik salduenaren arabera. Ekintzaileak Fathy Khdirat du izena eta azken

xehetasunak lotzen ari da. Ordu erdian dozena bat aldiz deitu diote, autoek hauts hodeiak altxatzen dituzten bitartean. Beroki lodia gainean, gaua izarren azpian pasatzeko prest etorri dela dio.

“Palestinako ekintzaile baketsuak Jordan Hareneko herri bat berreraikitzen ari dira. Etor zaituzte”. 40 bat pertsonari bidaliko dien SMSa prest du zirriborroetan, ingelesez eta arabiarrez idatzita, lekua zehatz adieraziz. Lur eremuan sartutakoan bidaliko du, Israelek komunikazio guztiak kontrolatzen dituela pentsatzen baitu. “Existitzea erresistitzea da” dioen pegatina itsatsi du begirada galduak bakarrik topatuko duten lekuan.

Filmetako protagonistak bailiran, autoetan sartu eta adostutako lekura joango dira, Israelek kontrolatzen duen administrazioan barrena, keinuekin elkar ulertuz. Oihalezko zinta batzuen

bitartez mugatu dute eremua, artzain gazte batzuen begirada adiskidetsua lagun. Lur eremu harritsua da, errepide ondoan, hainbat zuhaitz, hondarra eta Israelek lurpetik ura ateratzeko era-biltzen duen azpiegitura hesitua. Beren banderak haizetan jarritz bizirik daudela erakutsiko dute.

Hedabide palestinarrek ere nabarmenduko dutenez, Euskal Herritik joandako taldeak esku bat bota die. Tentsioa nabari da. Israelgo polizia militarra 10 minututan agertu da hiru *jeep*-etan eta metrailetak eskuetan. Hurrengo okupazioan pentsatzen hasteko ordua. Urteen poderioz etsipenean erotzen ari diren herritarrek erresistentzia aktiborako motibatu nahi dituzte, hirugarren Intifada edo altxamendu herrikoierako baldintzak ereini asmoz.

MILITARREK KONTROLATUTAKO HERRIA

Duela 20 urte sinatutako Osloko akordioek palestinarrentzat frustrazio garaia ireki zuten. Israelgo lehen ministro Isaac Rabin eta Palestinaren Askapenerako Erakundeko presidente Yasser Arafat ikus zitezkeen elkarri eskuak estutzen; ondoren, palestinarren estatu propioa baino, Israelek kolonien zabalkundea eta okupazio politikak nola areagotu dituen ikusi dute herritarrek. Nazio Batuen Erakundeak, beste askok bezala, “Palestinar Lurralde Okupatuak” terminoa erabiltzen du Zisjordania, Gazako Lerroa eta Jerusalem izendatzeko.

Aipatu akordioen ondorioz, Zisjordania A, B eta C eremuetan banatu zuten. A-n bizi da herrialdeko palestinarren %55, lurraldearen %18 hartzen duen eremuan, Aginte Palestinarrak kudeatutako administrazioan. Bertan daude Ramallah, Nablus, Jericho eta Belen hiriak adibidez. B eremuak lurraldearen %21 hartzen du eta palestinarren %40 bizi da bertan; kudeaketa partekatuta egiten dute israeldarrekin, paperaren gainean behintzat. Eta azkenik, Palestina historiakoaren gainontzeko lurralde osoaz gain, Zisjorda-

niaren %61 dauka kontrolpean Israelgo gobernuak. Jerusalem aparte utzi zuten, biek aldarrikatzen baina Israelek kontrolatzen duen hiriburu. Palestinarrak Jerusalem ekialdean bizi dira, murrak bananduta beste aldera pasatzeko bai-menik gabe.

“Bakea negoziatzen ari diren bitartean, palestinarren bizitza asko zailtzen dute Israelgo gobernuaren ekintzek, eta soluziorako aukerak mehatxatzen ditu”, dio Oxfam erakundeak herrialdean duen bulegoko zuzendariak. “Bake prozesu batek bi parteen aldetik kontzesioak eskatzen dituen arren, zibil palestinarrek dia oso prezio altua ordaindu dutenak”.

Palestinar askok pentsatzen dute eremuen zatiketa hutsegite handia izan zela, C eremuan baitaude nekazaritza lur sail nagusiak, uraren %80 sortzen duen akuiferoa eta Jordaniarekiko muga, Israelen kontrolpean. A eta B eremuetan soldaduak hain nabarmen ez ikusteak okupazioa ikusezin bihurtu duela diote, murraren ingurura joaten ez den herritar askorentzat behintzat.

QALQILIYARRAK, MURRUAREN LEHEN BIKTIMAK

Bizitzak aurrera darrai Qalqiliyako kaos antolatuan, Jerusalemdik iparraldera. Trafiko handia eta jende asko kalean batera eta bestera. Zisjordania amaitu eta Israel hasten den Marra Berdearen kontra dago. 2002. urtean, murrak erabat itxi zuen lehen hiria izan zen. U forman inguratuta, checkpoint batek kontrolatzen duen irteera bakarra dauka. 50.000 herritar bizi dira espetxe erraldoi honetan.

“Imajinatu murrak bat eraikitzen dutela zure bizitzan gehien maite duzun jendearen eta zure artean, pasabide bakarrarekin —dio Suhad Hashmek—, eta Israelgo militarrek erabakitzen dutela nor pasa daitekeen eta nor ez”. Palestinar askok bezala, eraikitzen ari direna ez dela segurtasun

murrua pentsatzen du, eurek onartzea nahi duten muga berria baizik. Marra Berdea baino kilometro batzuk ekialderago eraiki zuten behinola, bertako nekazariak lantzen zituzten lurretan eremua libre utziz kolonoen asentamendu berriak egiteko. Serio eta indartsu hitz egiten duen emakumea da Hashem.

Bulegoan dauka Palestinaren eboluzioa agerian uzten duen mapa laukoitza. 1922an zuriz margo-tutako lurraldea ikus daiteke, puntu beltz batzuekin; 1948an eremu beltza zabaldu zen Israelgo estatuaren sorrerarekin; 1967an maparen hiru laurdenak hartu zituen petroleo orban baten antzera, Sei Eguneko Gudarekin, zati zuria erabat inguratuz utziz; eta azkenik, egun, Gruyère gazta bailitzan, beltza da nagusi pixkana desintegratzen ari den eremu zuriaren aurrean, ondoan, goian, behean.

5.610.000 judutar eta 5.120.000 palestinar bizi dira Palestina historikoan. 5.3 milioi palestinar erbestean, NBEk emandako datuen arabera. Bitartean Israelek mundu osoko judutarrei herrialdera joateko hegazkin txartela eta herritartasuna doan ematen die. 2014ko otsailaren 6an lurralde palestinarretan beste 500 etxebizitza eraikitze baimena eman dute. Nazioarteko begirale askok Apartheid gisa definitu duten politika egiten du Israelgo gobernuak herritar palestinarrekin.

Koloniak elkarrekin batzen dituzten errepideei eta murruei begiratuta, argi ikus daiteke Israelek bost minututan moz dezakeela Zisjordaniako fluxua, hiru puntutan estrategikoki ezarritako checkpointen bitartez. Are, Gaza eta Zisjordania bereizita utzi dituzten bezala, Zisjordania bera ere erditik mozteko arriskua ikusten dute palestinarrek, mapan atzaparrak diruditen eremuak sortuz palestinarren lurretan. “Ura eta baliabide naturalak lapurtzeaz gain, asentamenduak Israelekin *de facto* batu dituzte, begi bistakoa da, beren errepideetatik lasai asko joaten dira Israele-ra lanera gauean herrira itzultzeko”. Murruaren



Suhad Hashem qalqiliyarrak nazioarteko begiraleak murrua bertatik bertara ikustera eramaten ditu.

“ Oxfam International

Bakea negoziatzen ari diren bitartean, palestinarren bizitza asko zailtzen dute Israelgo gobernuaren ekintzek, eta soluziorako aukerak mehatxatzen ditu”

AURRERA DARRAIEN DESPLAZAMENTUA

PALESTINARREN EXILIO BEHARTUA

1922

Moshe Sharett
ISRAELGO LEHEN
AZERRI MINISTROA

1914

ANAZTU EGIN DUGU
EZ GARELA INOR BIZI
EZ DEN LEKU BATERA
ETORRI LAZIK ETA
HERRIALDEA
KONKISTATZERA ETA
BERTAKO HERRIA
POPULATZERA

1880KO HAMARKADATIK
MUGIMENDU SIONISTAK
MODU UGARI ERABILI DITU
PALESTINARREN LURRA
BEREGANATU ETA BEREN
ITZULERA GALARAZTEKO,
ESTRATEGIA LEGAL,
FINANTZARIO
ETA MILITARRA TARTEKO

1922
LURREN
JABETZA

1922
POPULAZIOA
PALESTINARRA 675.000
JUDUA 84.600

1922AN
750.000 PERTSONA
BIZI ZIREN
BRITAINIARREN MENPEKO
LURRALDEAN,
84.000 JUDUTAR BARNE

1948

David Ben-Gurion
ISRAELGO
LEHEN MINISTROA

1914

ISRAELGO LURRALDEAN
DAUDEN ARABIAK
AUKERA BAKARRA
DAUKATE:
OSPA EGIN

1918 ETA 1948 BITARTEAN
480.000 JUDUTAR
IRITSI ZIREN

1948
LURREN
JABETZA

1948
POPULAZIOA
PALESTINARRA 1.075.000
JUDUA 720.000

1948AN PALESTINARREN
POPULAZIOAREN %50A
BAINO GEHIAGO
DESPLAZATUA IZAN ZEN,
750.000 PERTSONA

1967

Moshe Dayan
ISRAELGO
DEFENTSA MINISTRO OHA

1914

[ETXEA SUNTSITU
GENTUEN] EZ BATAILA
BATEAN, BAIZIK ETA
ZIGOR GISA
BIZTANILEAK JAZARTU
ASMOZ

1948 ETA 1967 BITARTEAN
1,3 MILIOI JUDU
IRITSI ZIREN

1967
LURREN
JABETZA

1967
POPULAZIOA
PALESTINARRA 1.200.000
JUDUA 2.388.000

1967KO GUDAN
440.000 PALESTINAR
DESPLAZATUAK IZAN ZIREN.
1967RAKO 1,1 MILIOI PALESTINAR
ERBESTEAN BIZI DA

EGUN

Benyamin Netanyahu
ISRAELGO EGUNGOKO
LEHEN MINISTROA

2019

ERREFUGIATUEN
ONDORENGOAK
ISRAEL EN MUGEN
BARNEAN TXERTATZEKO
ESKADRA
BEHIN BETIRAKO
ABANDONATU
[BEHAR DUTE
PALESTINARREK]

1967 ETA 2008 BITARTEAN
1,8 MILIOI JUDU
IRITSI ZIREN

2008
LURREN
JABETZA

2008
POPULAZIOA
PALESTINARRA 5.120.000
JUDUA 5.618.000

1967REN OSTEAN,
240.000 PALESTINARRI
ETXEA ERAIKITZEKO
BAIMENA UKATU ZAIE
2008RAKO 5,3 MILIOI PALESTINAR
ERBESTEAN BIZI DA

Infografia: Visualizing Palestine.
Euskaraketa: ARGIA.

laguntzarekin asentamenduak eraikiz, Zisjordanian sartzen ari da Israelgo gobernua

Qalqiliyako barrutiko lurretan, 22 herrixka edo asentamendu judu eraiki ditu Israelek. Lurren lapurreta agerian uzten du hiriaren hedadura ofizialaren datuak. 1947an 27 kilometro koadrokoan zabaltzen zen herriak egun 4,25 kilometro koadro ditu. Geroz eta pilatuago daude palestinarrek eta zortzi metroko murruren bestaldean 53.000 judutar bizi dira. Palestinarrak baino gehiago dira dagoeneko.

OKUPAZIOA KRIMINALA DA

Zer marrazki egingo ote dituzte eskolara joateko Israelgo armadaren checkpointetik igaro behar duten milaka haurrek? Nola azaldu milaka palestinarrek beren bizilekuaren eta gertuen duten ospitalearen artean halako horma bat izatea, askotan anbulantziei ere igarobidea ukatuz? Lurpeko ura ateratzeko azpiegiturak beren begien aurrean suntsitu eta beren ura saltzen dieten herritarrek zertaz hitz egingo ote dute sukaldean? Zer sentituko ote dute “Non jaio zinen zu?” galderari, “Qalandiako chekcpointean” erantzuten dioten haurrek? Eta bertan haurra galdu zuten amek, nola definituko ote dute biolentzia hitza? Aginte Palestinarrak emandako datuen arabera, 2000 eta 2005 urteen artean 31 palestinar jaio ziren checkpoint militarretan. 37 hil.

“Lurralde Okupatueta bizi diren palestinarrentzat ur seguru eta garbia ez izatea arazo larria da”, dio Amnesty Internationalek argitaratutako txostenak. Israelek darabiltzan praktikek palestinarrek diskriminatzen dituela ere adierazten du. “Ura lortzeko aukera ezberdintasuna oso agerikoa da. Palestinarren kontsumoa egunean 70 litrokoa da pertsonako batez beste, Munduko Osasun Erakundeak duintasunez bizitzeko behar direla dioen eguneko 100 litroen azpitik. Familia batzuk ez dira 20ra ere iristen. Kolonietan bizi diren israeldarren batz bestekoa 300 litrokoa da.

Israel eraikitzen ari den murrua ilegala dela eta hura eraistez gain, palestinarrei kalte-ordainak eman behar dizkiela ebatzi zuen Nazioarteko Justizia Epaitegiak 2004an. Nazio Batuen organo judizial nagusi horrek nazioarteko legedia oinarri hartuta ebazpen aholkulariak ematen ditu. Tel Aviven “segurtasun murrua” 2000ko irailean hasi zuten, bigarren Intifadako erasoaldiak geratzeko ezinbesteko zutela argudiatuz. Hori aitzakia dela pentsatzen du zementuzko hesien barnean zein kanpoan bizi den askok. Aipatu altxamendu herritarra 2005ean amaitu zen, eta ordutik, urtez urte hormigoi grisak geroz eta jende gehiago ixten du. Gelditzeko agindu zioten unean zuen luzera bikoiztu du dagoeneko. 800 kilometroko planetik 450 eraikita daude. Gainontzeko guztia txarrantxekin hesituta dago.

“Aizu, lanera joan behar dut, hiru ordu egin ditut hemen atea noiz irekiko, eta AEBetako pasaportearen dudaren arren, gaur ez didatela pasatzen utziko esan didate!”. Artikulua sinatzen duen kazetaria zer erantzun jakin gabe geratu zaio, ilarran zain dauden beste 20 bat herritar begira dauden bitartean. Isilean, eguzkitan. Burumakur joan da “egunero berdin” marmarraean.

“Helburua da palestinarroiei erakustea beraiek kontrolatzen dutela egoera, gure egunerokoa sudur puntan jartzen zaien bezala baldintza dezaketela”, dio aurrez aipatu dugun Suhad Hashe-mek. 500 checkpointetik gora ezarri ditu Israelek Zisjordanian eta nazioarteko legediak dio palestinarren oinarritzko Giza Eskubideak urratzen ari dela Israelgo estatua.

HEGOAFRIKA ARRAZISTA GOGOAN

Erabat bereizitako errepide sistema eraiki dute Zisjordanian. Autoen matrikularen koloreak agintzen du nondik bidaia dezaketen batzuk eta nondik besteek. Horia bada plaka, gidaria judua dela esan nahi du nagusiki, eta beraz, beraientzat eskusiboki egindako errepide berrietatik ibiliko



Israelgo gobernuak Zisjordanian eraikitzen ari den murrua, atzen kolonoen asentamendu bat duela.

da. Autoaren agiri metalikoa berdea bada, ezin du sartu, eta bigarren mailakoetatik ibili beharko du, murruek erabat baldintzatuta. Askotan itzuli zentzugabeak eman beharko dituzte mapan gertu diruditen bi leku elkar lotzeko; eta beste batzuetan bi errepideak parez pare joango dira, baina elkar ikusi gabe tartean horma dutela. Israelek Hegoafrikako Apartheid gobernuaren antza handia duela diote geroz eta ahots gehiagok. *New York Times*en otsailaren 1ean “Nolatan ari den galtzen Israel propagandaren guda” orri erdiko iritzi artikulua horren adibide. Hirsh Goodman idazle Israelzaleak abisua lerro artean Netanyahu gobernuari: Zaindu formak, Apartheid gobernu baten antzera jokatzeko ari zarete eta ez al zarete konturatu hori aurkan etorriko zaizuela?

Mediterraneo itsasoak bustitako lurralde lehor honetan, olibondo eta mahasti sailen gainean, mendixketan, bidaiariak erraz identifikatuko ditu milaka etxe zuri. Hiruki forman, bi isurialdeko teilatu gorriak dituzte gehienek. Kolonoen etxeak dira, mundu osotik joandako juduen herriak. Palestinarren etxeak berriz, teilatu lauan ura gordetzeko bidai beltzagatik bereiziko ditu, goian jarrita ura presioarekin jaitsi dadin. Ia herri palestinar guztiek koloniak dituzte alboan, parez pare, edo inguruan. Juduentzat hutsetik eraikitako herri eta hiriak dira. Daviden izar urdina duten banderak ez dira faltako, ezta herriak zaintzeko segurtasun pribatua ere.

Txalapartak argitaratutako *El judío errado* liburua kolono hauen erradiografia polita egiten du Alberto Pradilla kazetariak. Talde heteroegoa dela adierazten du bertan. “Kolono ideologiko gisa ezagutzen ditugunek baino ez dute erabaki konbentzimenduz asentamenduetara bizitzera joatea, Jainkoak lur hau judutarrei eman ziela argudiatuz”. Oso eraginkorrak maila politikoan, gutxiengo zenbakitan. Pradillak dioenez, asentamenduetara bizitzera joandako pertsonen multzo handiena arrazoi ekonomikoengatik joan da, etxebizitza merkeago lortzearen, nahiz eta

horrek ez duen esan nahi kolonizazioaren aurka daudenik. Azken urteotan, kolonoek beren gobernuari desafio egiten amaitu dute, muturreko jarrerak hartuz eta bake negoziazioetarako oztopo nagusi bihurtuz.

Duela urte batzuk, kolono bat mahasti baten jabe zen palestinarrarengana joan omen zen, bere sailetik zuhaitz bat erosi nahi ziola esanez. Palestinarrak, harrituta, eta egoerari xeble iretita, tratua egin zuen eroslearekin. Bere zuhaitza aukeratu zuten. Hurrengo egunean, arbola arantzadun hesi metaliko batekin inguratu zuen jabe berriak. Jerusalemdik Hebronera doan errepidearen ondoan ikus daiteke zuhaitz zauritua.

Nekazari palestinarrak beren olibondo sailetan lanean ari direla menditik antolatuta jaitsitako kolonoen erasoak jasan dituzte. YouTube *“Settlers attack palestinian”* hitz gordinak bilatuta, 27.300 bideo proposatuko zaizkio ikusleari. Tartean dira gauean sustraia teratit ateratako edo erditik moztutako olibondoak. Oscar sarietan dokumental onenaren saria irabaztetik gertu izan zen *5 Broken Cameras* filmean, olibondo sailari kolonoek su nola eman dioten ikus daiteke protagonisten etsipenerako.

ERREFUXIATUEN KORAPILOA

My homeland and me izeneko dokumentala ikusi eta erbesteratuen gaiaz solas egiteko 50 bat lagun bildu dira Alternative Information Center taldeak Belenen duen lokal hotzean. Errefuxiatu gunean bizi diren bi gaztek beren sakelako telefonoekin grabatutako lana da. Historia pertsonalak ezagutarazteaz gain, mezua garbi transmititu dute: gune hauetan bizi diren herritarrek itzulera eskubidea dutela erabat barneratuta dute, NBK eta bestelako nazioarteko erakundeek dioten bezala. Nahiz eta beren jatorrizko herria sekula ikusi gabeak izan, belaunaldiz belaunaldi beren jatorria zein den transmititzen dute, eta egungo bizitokia behin-behineko geltoki dela.

“Etxean kontatzen dugu historia, eta israeldarrekin dugun ezberdintasun nagusia da guk lur honetan sinesten dugula, hemengoak baikara”. Behin eta berriz ateratzen den gai zaila da erbesteratuen. Denbora baterako uzten zituztela pentsatuta atzean utzitako herrietara itzultzea debekatu zaie 66 urtez milioika palestinarrari. Nazio Batuen Erakundeak emandako datuen arabera, munduko errefuxiatuen herena palestinarra izateak eragiten duen etsipenaren erakusle da publikoan sortu den eztabaida. Batek adierazi du errefuxiatuek akatsa egin zutela: kanpin dendak utzi eta etxeak eraikitzen hasi, “egoera normalizatu”. “Errefuxiatua naiz, eta itzultzeko eskubidean sinesten dut, orain zu ikusten ari naizela dakidan ziurtasun berarekin”, eman dio besteak arrapostu. Audientzia txaloka hasi da.

“Zaharrak hil egingo dira eta gazteak ahaztu egingo dute”, Israelgo lehenengo lehen ministro David Ben-Gurionen hitzak ongi gogoratzen dituzte palestinarrak. Ez da halakorik gertatzen ari, memoriak ez du indarrik galdu. Sutsuki aldarrikatzen dute palestinarrak etxera itzultzeko duten eskubidea, NBK urteroko txostenetan errepikatzen duena: 1948an Israelen sorreraren ostean erbesteratuek eta horien ondorengoak diren sei milioi herritarrek beren herrietara itzultzeko eskubidea dute. Kalte-ordaina ere eman behar diete. Proiektatu berri duten dokumentalean bost urteko haurrak zera adierazi du: “Familiako ametsa bete eta gure herrira itzuli nahi dut”.

ITZULTZEKO BORROKAN

“Ez ditugu eskubideak sekula galduko, hauen alde borroka egiten duen jendea dugun bitartean”. Fayez Arafat ez da edonor Balata izeneko errefuxiatu gunean. 25.000 biztanlerekin, Zisjordaniako handiena da. “Arafat originala” bera dela diosku arabieratik itzulpenak egiten ari den lagunak, erdi brometan. Jaffakoa da, gurasoak eta seme-alabak bezala, nahiz eta ez den sekula han izan.



Fayez Arafat, errefuxiatua

Gatazka errefuxiatuekin hasi zen, eta ez da amaituko hau konpondu arte. Gure seme-alabei nongoak diren argi erakusten diegu etxean, beren izaeran sekula gal ez dezaten”.

“Jordanian, Sirian errefuxiatuak gonbidatuta dauden bezala, gu Palestina barnean Aginte Palestinarraren gonbidatuak gara”. Balata ofizialki 1952an fundatu zuten, Nablus hiriaren kanpoaldean. Bilera gelako atearen gainean ikus daiteke orduko argazki bat. Gune mortu batean hamar kanpinez osatutako hamasei ilara ikus daitezke atzean, aurrean gizon bat gameluarekin pasatzen ari den bitartean. Kilometro koadro bat alokatu zuen NBek, Palestina barnean, desertuan sakabanatuta eta pobrezia gorrian geratu ziren herritarrek biltzeko. Palestinan bertan 27 errefuxiatu gune daude. Dagoeneko batzuk inguruko hiriekin elkartzen joan dira.

Bistan ditu zauriak Balatak. Eraikinetan Israelgo artilleria astunak utzitako bala markak dira agerikoenak. Ikusteko zailago diren zauriak barruan daramatzate bertako herritarrek. Datu ofizialen arabera, bigarren Intifadan, 70 pertsona hil zituen Israelgo armadak Nablusen, eta ehunka atxilotu.

Haurrak jolasean ari diren kale estuotan, pobrezia %60tik gorakoa da. Haginlari, mediku eta zirujau bana dago 25.000 bat biztanlerentzat. Ikasgeletan 40 eta 45 haur artean daude, eta arazo sozialak ugariak dira.

Palestinako errefuxiatuentzat NBek sortu zuen UNRWA erakundearen ardura da sei milioi

herritar hauei oinarrizko zerbitzuak ematea. Pixkana eskuak garbitzen ari direla sinetsita dago ordea Arafat. Horregatik, herritar talde bat bizi baldintza duinak mantentzeko lanean ari da Yafa Cultural Center erakundearen. Israelek itzulera eskubidea onartu ala ez, herritarrok eskolak, ospitaleak, liburutegiak behar baitituzte.

“Gatazka errefuxiatuekin hasi zen, eta ez da amaituko hau konpondu arte”, diosku. Elkarriketaren ostean, argazki saioa egin dugu. Bertan erakusteko beren sinbolo duten giltza hartu du altxor preziatuak gordetzen dituen armairutik. Edalontzi zaharrak, katiluak, egurrezko kaxak dauzka gordeta, eta jabetza erakusten duten dokumentuak kutxa gotorrean giltzapean. Israelgo armadak Nablus inguruak bonbardatu zuenean, 2002an, instinctiboki salbatu zituen lehen gauzak izan ziren bere burua babesean jarri aurretik. Galdutako lurren aztarna arkeologikoak dira, berreraiki nahi duten bizi baten ametsa eta esku-bidea.

PRESOEN MINA

Balata errefuxiatuen guneko 430 herritar preso dauzkate Israelgo kartzeletan sakabanatuta. Legebiltzarkideak, irakasleak, ikasleak, sindikalistak, arrantzaleak, talde armatuetoako kideak, politikariak, nekazariak, haurrak... aurpegi ezberdin asko ditu preso politiko palestinarren argazkiak. “Helburua ez da segurtasuna, gizarte zibila zigortzea baizik. Zer egin du bada 12 urteko umeak atxilotua izateko?”, diosku Mourda Jadalhik. *Addameer* Presoen Babeserako eta Giza Eskubideen aldeko Antolakundeko kidea da.

Datuak ematen igaro du ordubeteko bilera. 5.028 preso politiko palestinar daude erreportaje hau idazteko unean Israelgo kartzeletan. Legeak hala baimenduta, tratatu erabat ezberdina jasotzen dute preso israeldar komunaren aldean. “Segurtasun presoak” dira arabiarrek. Palestinar bat epaiketa aurretik lau egunez eduki dezakete inkomu-

nikatuta; kolonoa bada, epaiketara 24 orduko epean eraman behar dela dio legeak. Ohikoa da oraindik torturak salatzen dituzten preso palestinarren testigantzak irakurtzea. Juduen tortura kasurik ez du erraz aurkituko interesa duenak. Palestinar bat nahi eran atxilotuko dute, egunez edo gauez, eta arrastaka aterako dute. Judutarrari kartzelara joan behar duela adieraziz oharra iritsiko zaio etxera. Emakumeak bortxatuak izan dira kartzeletan, 12 urtetik gorako haurrak atxilo ditzake polizia israeldarrak. Judu gazteena 16 urtekoa izango da. Harriak botatzeagatik 20 urteko kartzela zigorrak ezarri izan dizkiete. Haurrek beren gurasoei adierazi izan diete, besteren artean, pixa egin dietela burura espetxezainek. Dokumentatuta dauzkaten umiliazio zerrendekin liburuak idatzi daitezke.

Dispersio politikarik erabiltzen duten galde-tuta, fotokopia bat atera du ekintzaileak. Presoak Mediterraneo itsasoaren ondoko kartzelatan daude sakabanatuta, Zisjordaniatik punturik urrunetan.

Bigarren Intifada amaitu zenetik, 4.000 atxiloteta egin dituzte urtean, eta 1967tik 800.000 palestinar atxilotu dituzte. Denbora gehien daraman presoak 32. urtea markatu du egutegian.

Presoen aurpegirik ezagunena Marwan Barghoutirena da. 2002tik espetxean, inkestek diote palestinarren %60ak bera hautatuko lukeela lider gisa, Fatahko eta Hamaseko buruen aurretik. Ramallah kanpoaldean bere marrazki erraldoia egin dute murruan, eskuburdinak jarrita, garai-penaren ikurra eginez.

Preso palestinarren eskubideen alde lanean ari diren ekintzaile hauek gogor salatzen dute Osloko Akordioen ostean sortutako Autoritate Palestinarra polizia israeldarrari lan zikina egiten ari zaiola askotan. Legea bete behar duela arrazoituz, palestinarrek atxilotzen ditu polizia palestinarrek, ondoren Israelen esku uzteko.



Nablus kanpoaldean dago Balata errefuxiatu gunea.

“Yahav Zohar, israeldar ezkertiarra

Etxe suntsiketekin palestinarrak etengabeko beldurrean mantentzea da Israelgo gobernuaren helburua. Milaka familiaren aurkako prozesuak irekita dauzkaten, zintzo portatzen ez denak badaki zer gerta dakioken”.

JERUSALEM EKIALDEAN ERRESISTENTZIA

“Ekonomia kanpotik erabat esku hartuta daukaten herrialdeak hirugarren munduko gisa definitzen ditugu, eta Jerusalem ekialdea hala dago”. 33 urteko israeldarra da Yahav Zohar. Palestinarren eskubideen alde lanean ari den militante ezkertiarra da. Etxe Eraisketen Aurkako Komite Israeldarreko kide ohia da, Jerusalemgo auzo palestinaretara nazioarteko behatzaileak eramateaz arduratzen da denbora librean.

Palestinarrak eta israeldarrak beren hiriburu aldarrikatzen duten hiria erabat zatituta dago. Jerusalem ekialdean bizi dira palestinarrak, murrak bananduta, kale askotan espaloirik gabe, parkerik, etxeetako ur zikinak bideratzeko hustu-biderik gabe. Urtean milioika turistak hiriaz dararmaten oroitzapen distiratsutik oso bestela. Zaborra errepedearen alde bietan pilatzen ari da.

Jerusalem beren “bizitzaren erdigunea” dela frogatu behar dute ekialdean bizi diren palestinarrak. Froga anbiguo horren arabera mantendu edo kenduko zaie hiriko nortasun agiriak. Ez badira bertan bizi, ezin dute bertan egon, beren etxeak konfiskatuta geratuz. Politika horren aurka dago Zohar.

Bertatik bota nahi dituztela sentitzen dute auzokideek, gatazka palestinarraren esentziara joz. Hemen ere, existitzea erresistitzea da. Jerusalem ondoan bizi den palestinarrak ezin du hirira joan, bisitara ere, baimenik ez badu.

Eraikuntza berria debekatuta dago, eta baime-nak lortzea urtetako tramite luzea da bizilagunentzat, Zoharrek azaltzen duenez. Populazioa gora doa, eta estatistika zehatzik ez bada ere, 300.000 bat lagun biziko direla kalkulatzen dute, urtez urte haziz murru artean.

ERAITSITAKO FAMILIAK

Otsailaren 5a. Eguerdia. Auzoa zauritu dute Israelgo hondeamakinek Jerusalem ekialdean, aipagai dugun palestinarren auzoan. “Ez dakigu gaur non egingo dugun lo”. Bederatzi pertsonaren etxea suntsitu dute orain ordubete Israelgo militarrek, lau heldu eta bost seme-alaba teilaperik gabe utziz. Eguerdian izan da, bulldozerrak iritsi eta bost minututan, ezer ateratzeko denborarik eman gabe, dena birrindu dute. Down Sindromedun semea besoa sorbaldan jarrita babesten duela, begirada galduta dago aita. Hondeamakinak bertan zirela ikusita, auzokideak makinaren aurrean jarri dira inguruetatik harriak botatzen zizkieten bitartean. Gas negar eragilea bota eta etxea eraitsi dute. “Jainkoaren esku gaude”.

“Helburua ez da familia, honenak dagoeneko egin du, helburua auzoa beldurtuta izatea da”. Batzuk gela bat gehiago egin diote etxeari, beste batzuk gainean beste logela bat, batzuk komuna kanpoan. Baimenik gabe egindako eraikuntzak etxe osoaren eraisketarekin zigortzen ditu Israel-lek, eta egun 10.000 etxeren aurkako prozesuak abiatuta dauzka. Halere, urtean 50-60 bat eraisten dituela kalkulatuta dauka Zoharrek, nahikoa kinkan dauden familiak beldurtuta izateko, baina kopuru txikia beste herri altxamendu bat probokatzeko. Eraisketak, beti, egun argiz egiten dituzte.



Egun berean lau etxe eraitsi ditu Israelgo gobernua Jerusalem ekialdean. 28 pertsona gehiago etxerik gabe.

“Politikan edo herri mugimenduetan nabarmentzen bazara, badakizu zerekin jokatzeko ari zaren, zu edo zure senitartekoren bat”. Okupazioarekin amaitzeko, ez du jendarte israeldarrean esperantzarik jartzen. “Sistema israeldarra oso eraginkorra da eta herritarrek politika gauza aspergarria dela pentsa dezaten lan egiten du”. Bere hitzetan, israeldarren eguneroko kezketan urrun daude palestinarren Giza Eskubideak. Nazioartetik bai, handik etorriko dira gobernu presionatu eta neurriak hartzea eragingo duten ekimenak.

BORROKA FEMINISTA PALESTINARRA

Gizarte patriarkala da palestinarra. Argi dauka Soraida Hussein Emakumeen Komite Teknikoko kideak. Kolonbiako erbestean jaioa eta zazpi

urterekin Ramallahra itzulia, emakumeen esku-bideen alde lanean daramatza hamarkadak. Egoeraren larritasuna azpimarratzen du: “Datu ofizialik ez badugu ere, etxea eraitsi dioten familia batean, etxeko gizonak emakumea jotzeko joerak nabarmen igotzen dira”.

Palestinan emakumeak 1928tik antolatuta daudela ondorioztatu dute historialariek. 1952tik parte hartu izan dute gudan laguntzaile gisa, armak batera eta bestera eramaten edo zaurituak artatzen. Borroka armatuan 1967tik aurrera aurki daitezke lehen emakumezko ekintzaileak. Lehenengo Intifadan herri batzarren bitartez antolatu zirenez, emakumeek ezinbesteko papera jokatu zutela gogoratzen du Husseinek. 18 bat urte zituen berak, eta orduan egin zuen bat erresistentziarekin. Herritarren osasuna eta hezkuntza antolatu zituzten herrietan, eta

etxe askotako lidergoa eurek eraman zutela dio. Handik aurrera, emakumeak beren eskubideen alde nazio eraikuntzan ari dira.

“Kartzelak ez dira fisikoak bakarrik, mentalak ere izan daitezke”. Gaza jartzen du adibide, eta bertan jaio eta bertan hiltzen diren milaka pertsona horien lekuan jartzeko eskatu. “Ez dute sekula oina jarri beren muga inposatu horietatik kanpo. Bonbardatu egin dituzte, herritar horiek kartzela fisiko batean egoteaz gain, kartzela mental batean daude”. Ez daukate kanpoko emakumeekin harremanik, apenas duten mundua ulertzeko beste erarik ezagutzerik.

Orain arte behintzat: teknologia berriekin pozik da, ohartu baitira Facebookeko kontua egiten duten emakume palestinarrek sarean askatasuna aurkitzen dutela. Hori lantzeko, emakumeek bakarrik erabil ditzaketen ordenagailu gelak prestatu dituzte Ramallahn eta Gazan. “Mundura leihoak irekitzen ari gara”.

“Tankeak ez du etxea eta zuhaitza bakarrik hautsi nahi; norbera barrutik haustea da asmoa”. Borroka feministari ekin zionetik aurrerapauso handiak eman zituztela dio, nahiz eta bigarren Intifadaren osteko errepresioarekin, herritarrei erabat hauskorrak direla sinestarazi dieten, zertarako emakumeen eskubideen alde borrokatu inork ez badu eskubiderik? Berriz ere dena zero-tik hasi behar dute bere hitzetan. Azken urteetan biolentzia matxistaren aurkako dokumentu nazionala eta erakundeek erasoak jasan duen emakumea artatzeko protokoloa adostu eta indarrean jartzea lortu dute, adibidez.

ERRESISTENTZIAK BADITU MILAKA AURPEGI

Palestinarren erresistentzia ez da gauza berria. Britainiarren aurka altxa ziren duela 100 urte. “Borroka armatuarekin Israel oso eroso zegoen, haiek hiltzaile profesionalak baitira, ikaragarri-



Jerusalem Ekialdeko auzotarrak lur jota bizilagun baten etxe eraitsiaren aurrean.

ko armamentuarekin hornituta, eta gu berriz, oso baliabide mugatuak dituzten herritarrak”. Propagandarako erabiltzen dutela salatzen du erreportajearen hasieran aipatu dugun eta kanpamendu palestinarrak koordinatzen dabilen Fathy Khdiratek. Munduaren aurrean palestinarrei terrorista deitzeko baliatzen dutela dio.

Herritarrak “modu eraikitzailean” desobedientzia zibila planteatzen ari direla nabarmendu dute FDLP mugimendu palestinarraren ekertiarreko kideek. Izenik ez dute eman nahi, segurtasun arrazoiengatik. “Negoziazioek ez dute egoera konpontuko. Israelgo propagandak dio ez ezer egiteko, planteamendu bat dutela, baina hori ez doa inora. Alternatiba bakarra herri-erresistentzia da”.

Giroa berotzen doala diote, geroz eta jende gehiago dagoela erresistentziarako prest, “eta une batean, zerbait gertatzen denean, berriz ere herria altxako da”. Armei ez diotela uko egiten dio, “baina hau beste gauza bat da, jendeak egin dezakeen zerbait”.

Erresistentziak prezioa dauka ordea. Hala da mundu osoan, eta Palestina ez da salbuespena. AICK jasotako datuen arabera, 40 pertsona hil dituzte ekintza baketsuetan, ehunka zauritu eta milaka atxilotu azken hamarkadetan.

Aginte Palestinarrak dio erresistentzia herrikoi kontrolatua nahi duela, baina ez dela halakorik gertatuko uste dute FDLPk kideek. “Badakigu israeldarrekin egindako adostasunekin lotuta daudela, baina gu ez. Herria ez da Aginte Palestinarra. Jendeak gehiago nahi du”. Mugimenduak indarra hartzen duenean, ezingo dela gelditu sinesten dute.

“Era guztietako ekintzak egin ditugu okupazioaren aurka”, dio *Stop the Wall* mugimenduko kideak: Manifestazioak murrua eraikitzen ari diren lekuetara, kolonietara eta israeldarrentzat eraikitako errepideetara; 15 herrik ostiralero

konfrontazioa bilatzen dute soldaduekin eraikuntza gunean; konfiskatutako lurren okupazioa baketsua; murraren aurkako ekintzak, barrikadak eta erasoak; segregatutako errepideetan Palestinako banderekin auto karabanak, kolonoen supermerkatuen okupazioak...

Okupatzailearen jarduera ekonomikoki nola garestitu pentsatzen ari dira aurrera begira. Murraren aurkako ekintzak eginez, teknologia garestia erabiltzen hastea bilatu nahi dute, kamerak, hesi elektrikoak, eta horiek zainduko dituzten soldadu gehiago. “Zenbat eta baliabide gehiago behar Israelen gu zapaltzeko, orduan eta ageriago utziko dugu Israeli emandako dirua gure Giza Eskubideak urratzeko erabiltzen dela, noizbait bideraezin egin asmoz”.

“Dagoeneko ez gara lur puska bati buruz hizketan ari, duintasuna da jokoan dagoena. Bizitza hau horrelakoa da, eta horregatik, elkarri maitasuna ematea tokatzen zaigu. Israeldarrek galdutzat eman behar lukete borroka hau, gure bizimodua jada erresistentzia baita. Ni hilko naiz, baina hurrengo belaunaldiak hemen jarraituko du”. Soraida Husseinek esana herritar askoren ADNan txertatutako ideia.

LEGALITATEA OKUPAZIOAREN AURKA

“Legeak gure alde daude”, dio Hussein Ahmedek. Al Haq-eko kidea da, nazioarteko zuzenbidearen esparruan lan egiten duen erakundea. Palestinako abokatuek sortu zuten okupazioa borrokatzeko, nazioarteko legeak modu unibertsalean baliatuz. Urraketa guztiak jorratzen dituztela diote, “edonondik datorrela ere”.

Batetik, Aginte Palestinarra epaitegietara eraman izan dute. Azken kasuak aipatzeko galdetuta, nabarmendu dute sei pertsona atxilotu zituztela Facebooken egindako iruzkinengatik, manifestazioak bortitz sakabanatu izan dituela polizia palestinarrak, eta batez ere, hauteskunde-



Omar Barghouti,
BDS mugimendua

**Hiru aldarrikapen ditu kanpainak:
Lehenik Israelek okupazioa amaitzea
Gazan eta Zisjordanian. Bigarrenik,
palestinarren eskubideen errespetua.
Eta hirugarrenik, errefuxiatuen itzulera.
Hiru helburuak lortu arte ez dute
geldituko”.**

rik ez dela izan 2006tik. “Halere, alor honetan dugun borrokarik nagusiena palestinarren izenean sina litezkeen negoziazioetan gure eskubideak errespetatu daitezkeen bermatzea da”.

Bestetik, Israelen okupazioa ahalbidetzen duten enpresen aurka egiten dute. Horretarako, herrialde bakoitzeko legedia aztertu, eta argudio legala bertan oinarrituta epaiketak abiarazten dituzte. Herbehereetako garabi enpresa bat izan da azken helburua, murruren eraikuntzarekin negozioa egiten ari zelako. Hiru urtez epaitegie-tan ibili ostean, artxibatu egin dute kasua, baina pozik daude abokatuok epaileak ondorengoa adierazi duelako: “Herbehereetako enpresek guda krimenetan parte hartzen badute, Lege Kriminala aplikatuko zaie”. Ordutik “okupazioaren konplizeei” beti adierazten diete kontutan hartu behar luketela hori.

Enpresaren baten aurka epaiketak irekitzea lortzen dutenean, herrialde horretako Palestinarekiko elkartasun sareek kanpainak abiatzen dituzte enpresaren izen ona kaltetzeko. “Argudio legal indartsuak ematen badizkiegu, herrialdeetako ekintzaileek zilegitasun handiagoz indar ditzakete boikot kanpainak, enpresa horiek legea urratzen dutela salatuz”.

Israel ez dago besoak gurutzatuta, eta talde honetako kideen aurkako operazioak egin izan dituzte. Horrez gain, kalkulatu dute 12 eta 14 milioi euro artean bideratzen dituela nazioartean abiatzen diren epaiketa eta boikot kanpainei aurre egiteko.

Al Haqeko kideek egindako gestio eta presio lanek izango zuten zerikusirik 2013ko ekainaren 28an Europar Batasunak hartutako erabakian. Debekatuta diru-laguntzak, kolaborazioak, ikasle eta ikerketa bekak eta sariak Zisjordanian eta Jerusalem ekialdean kokatuta dauden erakunde israeldarrentzat.

BOIKOTEAN ESPERANTZA JARRITA

Esperantza Israel beldurtzeko gai izan den borrokan jarria dute palestinarek azken urteotan: Boikot, Desinbertsio eta Zigor (BDS) kanpaina. Mundu osoan enpresa israeldarrei milioika euroko kontratu galerak eragin dizkien mugimendua da. Palestina osoko alderdi politiko, sindikatu eta herri mugimenduek 2005ean abiatu zuten.

Omar Barghoutirekin bildu gara Ramallahn, figura esanguratsua nazioartean. Bera izan zen BDS kanpainaren bultzatzaileetako bat. Hiru aldarrikapen ditu kanpainak: Lehenik, Israelek okupazioa amaitzea Gazan eta Zisjordanian. Bigarrenik, palestinarren eskubideen errespetua. Eta hirugarrenik, errefuxiatuen itzulera. Hiru helburuak lortu arte ez dute geldituko aparra bezala hazten doan kanpaina.

Arrakasta izan baitu: Gobernu batzuk aktiboki gogorarazten diete beren herrialdeko enpresei Israelekin negozioak egiteak ondorioak izan ditzakeela. Herbehereak edo Erresuma Batua dira horietako bi herrialde. “Justizia lortuko dugu eskubideak lortzen ditugunean”, diote. Hegoafrikan inspiratutako kanpaina da, Apartheidaren gobernu erortzeko ezinbesteko izan zena. Esku hartzeko unea dela adierazi nahi dute.



Israel palestinarren egunerokoa baldintzatzen saiatzen den arren, bizitzak aurrera darrai.

Boikotaren tamainaz jabetzeko, BDSmovement.net guneko “Garaipenak” atala begiratu besterik ez dago. Mundu osoko boikot diplomatikoak, akademikoak, kulturalak, kirol arlokoak, kontsumo boikotak, desinbertsioak eta zigorrak zerrendatuta daude. Barghouti jabetzen da estatu oso bat baldintzatzeko potentziala duen mugimenduaren gidari direla, eta irribarrez dio ikusi dituela Gasteizko Tau saskibaloit taldeko zaleek Tel Avivko Maccabiren aurka egindako protesten argazkiak.

Bilbon eman ziren 2007an Veolia enpresaren aurkako mundu mailako boikotaren lehen pausak. Zisjordaniako asentamenduak lotzen dituen tranbiaren eta eremuotako hondakinen kudeatzailea da, eta hainbat hiritan milaka milioi euroko kontratuak galdu ostean, utzi egin nahi duela adierazi dute.

2013an AEBetako bost unibertsitate nagusiek Israeli boikot akademikoa egingo diotela adierazi dute ikasle mugimenduen lanari esker. Erresuma Batuko hainbat hiritan kontratuak eten dizkiote Israelgo kartzelak eta kolonoen asentamenduetako segurtasuna kudeatzen dituen GHS enpresari. Musikari askok Israelen jotzeari uko egin diote. Afrikako sindikatu nagusien federazioak, 15 milioi langile ordezkatzuz, BDS kanpainarekin bat egin du. Europako Sindikatuen Kongresua erabakitzen ari da Israelgo asentamendu ilegale-tan ekoiztutako produktuen aurkako ekintza.

“Irabazteko egiten dugu borroka”. Mundu osoan ugaltzen den mugimendua izaki, herrialde bakoitzak bere borroka errealitate propiora egokitu behar dutela argi dute. “Adibide bat jartzearen, musikari israeldar baten kontzertu bat moztuta publikoko jende gehienarekin ez badute



Errefuxiatu palestinarra atzean
beren sinbolo den giltza duela.

konektatuko, beste nolabait planteatzeko eskatzen diegu ekintzaile taldeei”. Horretarako irudimena gakoa dela uste dute. “Israelgo musikari baten kontzertuko atean, kanpotik abeslariaren argazkia zuten eskuorriak banatu zituzten Europako hiriburu batean. Kontzertura joan zirenek programa zelakoan hartu, eta behin aretoan, barnean zer zegoen begiratu zutenean, Gazako bombardaketako argazkiak eta Israelek eragindako hildakoei buruzko datuak aurkitu zituzten”. Ekintza horri esker, batzuk kontzertutik atera zirela gogora ekarri du.

GARAIPENA LANTZEN JARRAITUKO DUTE

“Israelek kontrolatutako lurretan sartu eta bertan kanpamenduak altxatzen ditugunean, polizia militarra etortzen da gu botatzera”. Bere bizkarraren gudarako prest dauden agenteak dituela, argazkia bilatzen omen du polizia buruak, armamenturik gabe, manifestariei eskua ematera joaten denean. Telebistan erakutsi izan dute palestinarrek ez dietela eskurik eman nahi israeldarrei. Palestinarrek estrategia aldatu zutela kontatzen du Fathy Khdiratek. Orain, agentea telebistaz lagundurik etortzean, “ez dizugu eskua eman nahi, besarkada bat baizik”, esan eta manifestari guztiak agentearen atzean dauden poliziak besarkatzera joaten dira”. Polizia ez omen dago entrenatuta bortizkeriarik gabeko erresistentziari erantzuteko. Orain kazetari palestinarrek dira agenteek atzera nola egiten duten munduari erakusten diotenak.

“Borroka armatuaren bitartez Israel lehoi bat bezala ikusten dut, baina desobedientzia zibila erabiliz puxika bat dirudi”, dio FDLPk ekintzaile palestinar batek. “Ados, negoziatu beharko dugu, eta adostasunera iritsi gainera, baina ezin dugu mahaian eseri inongo indarririk gabe, beste aldean superpotentzia bat dugu, Israelen aldeko jarrera duen bitartekari batekin. Hortik ez da inoiz justiziarik iritsiko”.

“Egoera bertatik bertara ikusi eta palestinarron alde zer egin dezaketen galdetu izan digute urteetan nazioarteko ekintzaileek. Orain badugu erantzuna –dio Omar Barghuti BDS kanpainaren ideologoetako batek–: bat egin boikot kanpainarekin eta inguruak mugitu. Eragin zuzena du palestinarrongan, Israelgo ministerioan boikot ekintza bakoitzaren berri baitute eta munduan bakarrik geratzen ari direla ikusiko dute, noizbait jarrera aldatu beharrez”.

“Nik agian ez dut sekula nire herrira itzultzerik izango –hasi da Fayed Arafat errefuxiatuen eskubideen aldeko ekintzailea–, baina hurrengo belaunaldiak ziur baietz”. Historiari errebaso bat egin dio erakusteko inperioak ez direla betirako. “Nork esango zuen duela 70 urteko Erresuma Batu inperiala egun horrela egongo zenik? Nork Sobiet Batasuna eroriko zela? AEBren inperioa ere eroriko da, Israel arrazista honekin batera, eta guk borrokan jarraituko dugu, askatasunaren alde”.

Gatazka konpondu nahi bada, gainontzeko herrialdeek Israel belaunikaraztea lortzen dutenean, bere etxeetara itzultzeko duten eskubidea onartu beharko dio herri honi. NBEk hala dio. Bitartean, lehen errefuxiatuen belaunaldiak etxetik eraman zituen objektuekin museo bat egitea pentsatzen ari dira Balatan. “Aurrenekoa izango da Palestinan –dio alai Arafatek–, baina behin behinean egin beharko dugu, noizbait etxera itzuli behar baitugu”.

Murrua eraikitzen hasi zirenetik 200.000 bat olibondo suntsitu dituzte israeldarrek Palestinan. Bakearen sinbolo den adaxka baina, noizbait justiziarena ere izango dela sinesten dute askok. Horregatik, urteak joan, checkpointak etorri, hormaren azpitik tunelak egin edo gainetik eskaileraz pasa, haurrak hezteko baliatzen dute eraso bakoitza. Sufrimendu latzaren lekuko izan den lurrean, milaka olibondo kimu landatzen jarraitzen dute urtero. ■





Donostia munduari begira ere badago, beste herriei, beste errealitateei...
Eta ez da elkartasun kontu hutsa, mundu bidezkoago bat sortzeko konpromisoa baizik.

Donostia, herri askori zabalik dagoen hiria



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián